

DOMINGO LAIN, apaiz gerrillero

Arritu egiten gifañ gerran ibilli zan Santa Cruz apaizarekin. Euskaleria salbatzeko karlistekin bat egirik armak eskuan zituela gerra egin zuan apaizak txundituta uzten giundu. Nola, bada, armak aritu ezertan nabarmendu bear ez zuan apaizak! Utikan gerra! Utikan politika!

Camilo Torres apaiza izan da Kolonbian ikkiliak artuta mendira atera zana gudura. Beartsuerg, goseak eta egaririk zeudenei, etxerik gabe arkitzen ziranai laguntzeko beste bidetik ez zuan ikusten. Oñez onean ez zegoan aldatzerik batzuk gero eta beartsuago eta besteak gero eta aberatsago bihurtzen zituzten erakunde eta moldeak.

Domingo Lain apaiza bihurtu zaigu oraindik orain gerra-zale. Zaragozako semea izanik Ameriketara mihiolari joan zan apaiz zintzo eta langillea alajaitan!

Onela garbitzen du bere burua Domingo Lainek: «Erriarentzat eta erriari argi egiteko naizen ezkerreko apaiz ELN'ko gerrilletan sartzen naiz erri orri serbitzeko eta erri orain gidari izatearren».

«ARRAZOI SENDOAK EUKIKO ZITUAN»

«Ogei eta zortzi urteko apaiz Jainko-zale batek ebanjelioak eskutan arturik gerrilleren bizitza latz eta gogorren sartzeko arrazoi sendoak eukiko zituen. Etxea, lagunak eta pakea utzi eta mendira joatea ez da herriketa», dio Lain apaizaren erriar dan Eduard Fombuenak.

«Berak eta Españiit Ameriketara mihiolari joan ziran beste apaiz askok benetan bizi dute Ebanjelioa. Beroiek bakarrik dakite angio berri. Alengan ez dago politikariki. Gizon jator eta apaiz on bat dugu Lain», dio berarekin batera Zaragozako apaiztegiaren ikasi zuan Joakin Sanz Martin erretoreak.

«BEARTSU BIZI ZAN»

«Lain eta bere taldekoak oso beartsu eta arloste bizitzen ziran». Lurrean lo egiten zuten. Tabakotarako ere dirurik gabe zeuden. Inork ez zekaneen ensan diru egitera joan ziranik. Ez da emakumeekin ibiltzen ziranik ere. Ori bai liburu-pilla aundiak zeuzkaten. Ez dakit nondik sortzen zituzten, «dio beroiekin artu-emanak zituan aita Mazok».

«Arriturik zeukaten jendea. Gero eta jarraitzaile geiago zuten. Ikasten ari ziran askok ere utzi beren ikasketak eta jarraitu egiten zien. Batera bizitzen ziran danak. Garai artan unibersitarioekin lan egiten zuan. Danak ies gizon zidaten oiatera joateko», aitortzen du aita Mazok.

«Etxeak eta kaleak konpontzen jarduten ziran. Poliziak bakarrik gaizki begiratzten zien», esaten digu aita Mazok.

«APAIZGAI ZALARIK»

«Kezkatia eta trebea zan. Oso jatorra. Asko zekian. Ikaslerik onenak bat zan. Ondo ezagutzen zuan Teoliji berria. Danakin ondo konpontzen zan. Futbolista ona. Ez zan biurria. Erantzun gogorretakoa baina oso noiz peinka», aitortzen digu azken urteetan apaizategiaren izan zuan zaitzaileak.

Gazki antolatutako munduan bizi gera. Batzuk geiegi, askok gutxiegi.

«Ondasunen baka-jabetzen inzeanen bildurgarriko gauzak egiten dira gure lurraldeetan... Milioika bizi-lagunen mixeri gorriaren bizkarretik aberastutako dirudun-talde txikiak dauzkagu Ameriketari. Eta Gizon aundi oiek, garai bateko jauntxoan antzera, beren esku dauzkate indar guztiak... Dirudun eta militarren elkar-arteza azkenea da» dio Helder Camarak goizaik angio egoera aztertuz.

Gogorkeria... gogorkeria... ez da Kristoren legea diote, ondo bizi diran askok.

«Baña zer gogorkeri?» galdetzen du Helder Camarak. «Zapal-dutakoen goseak sortu zeakene gogorkeria, ala zapaltzaileek zapalduakoen aurka ezarritako gogorkeria?»

Negargarria da orratik bidegabekierako egoera auek aldatzeko onelako gizon onak pistola artu beaaren arkitzeak!

Domingo Lain apaiz argi, trebe, biotz-bera eta Jainko-zalea gizonak salbatzeko gerrillero egin da.

Gizartearen onerako izango ote da? Bere onerako ez da izango beintzat. Bizitza latz, gogor eta neketsuari ekin dio. Guk ez bezala bere bizia arrixkuan jarri du lagun urkoaren alde.

Laster irakurriko dugu oraindik: «Domingo Lain apaiz gerrillero il da bala batek jota».

IKASTOLAK, PROLEMA LATZA

Aspaldi hontan artikulatu ugari irakurri dugu ikastolei buruz; ahopiko mintzaldietan ez dator antzuzago gai hori. Prolema latza eta adar askotakoa benetan, bere mami lerro batuetan eman nahiz izateko, nahiz bat utzi handikoena izan. Halere, ezin gaizki ikus, entsegu horietara jotzen duenik. Hain korapilotsu denez gero, sintesia bat egin lezakeana (inoiz egin ahal izango ote erabateko sintesia bat?) etorri biartean eta hori gerituzeko, askok eta askok alderdika joka beharko dute.

Baina, entsegulari horiek, oinarriko erregela batzuek lepora beharko dituzte, gizabidez jokatzeko. Eta horize da gure artean hain garbi ikusten ez dena.

Aski dugu artikuluren batzuk irakurtzea edo ikastolen bideak «ezuztzen» hasi direnen jokabideari begiratzeko. Eta zer nabari da? Hauze:

a) andereño nahiz maisu batzuei, lepatintzailu, Maoren irudia ezarri eta kitto; horiek ez dira euskal-irakasle izateko gauza. Eta: Kanpura hortik!!! Gurasoei dute hitza ikastoletan.

b) Orain arteko ikastolen bideak, gure herrietako elkartasunaren etena sortu omen dute; segregazio-bide omen dira. Eta hori ezinezkoa da: nazional-eskolek irakasleekin har-eman gehiago behar da izan. Hortaz, orain orain arteko andereño eta ikastola-zuzendariak. Honelako ameskeria eta sinplekeria franko ageri da gure artean.

Nere buruari —nik ere inoiz amets egiten bait dut— galdera hau daigot:

a) Hain zeharo eta erabat —zirt-zart— garbi ahal daiteke prolema bat? Gurasoen eskubide hau, irakasleen hau: hain mugatuak ote alderdi horiek? «Nola» erakutsi, irakasleen egitekoa da —esan izan da—; «zera» erakutsi, berriz, gurasoena. «Nola» erakutsi ez ahal darama berarekin «zera» erakutsi? Eta «zera» erakutsi ez ahal darama berarekin «nola» erakutsi?

b) Ikastolak segregazio bide direla eta nazional-eskolek irakasleekin har-eman gehiago behar dela diotenak, nun daukate begiak? Gure arteko errealitatearen sumo trikienik ba ahal dute? Zertarako eta nola eta noiz sortu dira ikastolak? Eta zein zoritzen diraute?

Eta hau bederen: hori dioteneak, zer har-eman daukate irakasle horiekin, kristau ikaspideta dela edo beste hainbat gauzatan dela edo bigarren mailako ikasketarako dela? Zein har-eman?

Amets huts izateko, ez ahal da tamaina handi samarrek hori guzira?

d) Eta andereño nahiz maisu, tituludun nahiz laguntzaile, sahes-tu ahal daitezke besterik gabe ikastola lanbideitak?

e) Ikastolak prolema badira, ez ahal da prolema hori garbitzen saia behar, ez zirt-zart, ez «Ego diria» batekin, elkar-hizketa batekin baizik?

f) Prolema honen jira-biran, prolemaren aska-entsegu horietan ez ahal da ageri, nahai-zabal, gure mundua morroitu nahiean dabilen diruaren indarra? Nagusi, jaun eta jabe nor? Ahal duena. Joku berria gure arazo hontan.


Nun da batikano II-gnaren irekitasuna; nun da Paulo VI-gnaren eta Batzar Nagusiaren elkar-hizketarako deia? Museo askotzoko sortu ote dugun nago. Gure gateriaren gogorkeria eta bakarkeria, helduak —ofizialki bakarrik, ez gizatasunez— geranon gogorkeria, bakarkeria, ustekeria, nagusikeriatik ez ote darian nago. Gogorkeriak gogorkeria dakarrela ez ahal diogu, bada?

Elkar-hizketaren dialektika bide baten aukerarik ematen ez badiogu gateriari, zertan harritu giza-mailen burruakaren dialektika-bidea delako teoriara jotzen badu? Horrela, gerok erakutsia hartzea besterik ez dute egiten; eta esan egin ehan behar da: bide bakarra daukate aukeran horrelako bizi-giroan.

Bukatze; hauze bederen: ez dezagun gure jokabide hori kristau-erlijioan tinkatu. Historian zehar izan dituen krizadak eta erlijio-gutxiak eta nagusikeriak aski ditu Eli-zak bere bizkar gain. Azken aldi hontan, Jainkoari esker, Erlijio askatasunari buruzko agiri bat ezagutu dugu; Gaudium et spes bat ere, bai; elkar-hizketari buruzko enziklika bat ere, bai. Hoieri esker, ba dakigu, ez dezakegula joka-ahal lehen bezala, kristau ez diranei buruz; ba dakigu, kristau ez direnekin har-emanak izan dezakegula eta izan behar ditugula; ba dakigu, biziera osoa elkar-hizketa behar duela izan.

Mintza gaitzen gutziago erlijioz eta bizi dezagun egizago. Ireki ditagun zertxobatz gure musuak.

DIO NISIO AMUNDARAIN



ZERUKO ARGIA

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA
ARISTEGIETA

Naparrokoi-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak argitaratuta
(Carlos III, 22-Pamplona)

DONOSTIA'n:

Oquendo, 22-Telf. 26666

ARPIE SARIA:

Barruan ... 215 pezeta

Korreo batasunetako errieta. 265

Atzerrietako beste errieta. 285

Aidez Aurrez galdetu.

Salmentan (Ale bakoitze) ... 5 pezeta

FIDEL CASTRO TA DOUGLAS BRAVO

Traidore bat ah al da Castro? Gerrilar buruz aspaldidaniako dira URSSen eta Fidelaren arteko diferentziak, Azkenean URSSen usteetara bihurtu da Fidel. Gauza harrigarritua da Fidelek inoiz bai, eta orainxe ikusi beharra Hego-Amerikako gerrilak ez (?) dakuala irretarik. Ez ote da gerrilaren esportazioa baino premiazkoago duela azkurearena? «Año del heroico guerrillero» handiki ospatu ondoren, «hamar milun urte» ospatu nahi du Fidelek aurtun. Ez dirudi Fidelen ota Douglas Bravoren artean sortu diran diferentziak gertaera honi begiratu gabe azal ditezkeanik.

Fidelen esanean «Kubako herriaren etorkizuna erabakiko duen baita» da hamar milion tonelada azkure biltzeko uztu hau. Orain arteko plangintzak ezin bete izaten ziran, asmoen aldean behetik galditu da beti efektibitatea. Aurtengoak «la Gran Zafra» izan nahi du, eta plangintza hori xehetasun guztiekin da betetzen. Baina zafra honek ardura guztien konzentrazioa eskatzen du.

Kubak ezin dezaioke gerrilari lagundu. Kubatik bertatik ematen zaigu gerrilak ezin pagatzearen arrazoiak, eta ez dauka gerrilaren bezieko gaurekotasun eta ahalasunekin zerikus handirik. Kubaren gizarite-produktua, bruto, 1958 ingururaino atzeratuta dago. Gutxienez 2,5 mila milioi dolar inguruko zorrak dauka URSS-ekin eginda. Eta kreditatu behar dugu atzeratik. Hego-Amerikako beste Erre-

sumekin ere harreman komertzialak lotu behar ditu (Chilerekin hasi da). Ugarte bat ere munduan bait dago. Kuba ezin ditek mundu guztiarekin haserre ala zorretan bizi.

800 milioi dolar inbestitu dirala aurtengo zafriari begira azkureso berriak goldeatzeko, jakinarazi du Fidelek. Eta Kubaren esportazioan azkurearenak bakarrik ehundik latorgetabosta (85%) betetzen du. Azkure-errotak berritatu egin behar dira: Kubako 152 azkure-errotak guztiak dira berrogei urtez gorakoa. Makineria berritzeko dibisak nundibait inguratu beharra dago. Garraio-gailuak ere ugariatu behar dago Kuba.

Fideli ez zaio URSSen asmoetara bildu beste erremediorik gelditu. Gerrilak utzi eta «Azkure-uzta Handiaren baita» deklaratu, zorrek itoko ez badute, 350 mila herriar, 75 mila gudari ari dira azkure-kainetara moztzen. Kuban ikasteko edo gerrilaren entrenatzeko dauden atzerriar gazteak ere azkure-legionario bihurtuta daude (600 inguru ziran joandako abenduan zafra orri ziranak). Atzerriar diplomatikuek ere ez dira gelditzen matxeta eskuan hartu gabe: URSS-eko Defentsa-Ministro Gretscho bera, Kuba bisitatzeko, zafra agertu zan. Fidel Castrok zafraaren baita irabazteko beste ezertarako baino interese gehiago daukala bistan dago, Douglas Bravori gustatzen ez bazaiola ere.

Fidel Castrok gerrilarekin egiazki itxaropena galdutxo ote duen eta ge-

rria zabaltzeari amor-eman ote dion jakiteko goizegi da. Gerrilak ez daukala jadanik bazi herriarrik, esaten da. Baina bazi-gabezia hori, ez zenik, Kubako ekonomian dago. Limite batetara allegatzen ari da Kuba, Zafra Handiaren baita irabazi behar dago dago derrigor. New York eta Londongo azkure-borsak gehienegenez 8 milioi toneladako azkure-uzta kalkulatu diote Kubari. Fidelek, oster, «hamar milioi, libbra bat ere ez gutxiago, eta uztaillaren hamabosterako gainera» agintzen du. Plangintza hau betetzen baldin bada Kubako produzioak ikaragarriko aurreraila egingo du. Eta aurreko urteetan plangintzak bete ez ziralako errezeloz atzeratu edo itxi egin ziran kredituaren eskuak berriro irabaz ditzake Kubak. Garbi asko esan du Fidelek horixe dala lortu nahi duena.

Gogoangarria da urte berean URSS ek ere Hirugarren Munduari laguntza laburtu egin diola, Sibiria-ko inbestizioak jasotzea beharturik. URSS-ek eman erruz eman dio Kubari, baina atzera hartzeko gogorik ere ez zaio falta noski. Beltzak erakusten ari balta txinotxo orain... Eta inork ez daki, Sibiria-barneko errekek uadaberrin desiozotzen dianean Txinak nun jarri nahiko diuene URSS eta bere arteko mugak. Hari luzeak mugitzen bait ditu Douglas Bravo Venezuelan bakarrik abandonatzen duen deabruak.

AZURMENDI

EUSKALERRIARI

BEGIRA

«ZERUKO ARGIA ostiraletan el-tzen da gure etxera. Gaur, larun-bat arratsaldean, irakurri ondoren, ibillaldi luze bat egin det Bilboko kaleetan zear, beste kirol saiorik egiteko astirik ez det izaten eta. Bilbo barri ta Bilbo zaarkeo kaletetan zear ibili naiz; ordu ta er-dian gizakume talde guztietara bel-riak luzatu arren ez det euske-razko itz bat entzun. A, bai! «agur» entzun det; bilbotarren artean oi-tura orri sartuta daukagu, erderaz parra-parra egin eta gero, alden-dukeran agur esan.

Baia leen esandakoa ez det uske-ritzat esaten, gaur Euskalerriko (?) urrik aundienaren giroa azaltzeko baiño. Giro au ikusirik «Zaloña» jaunaren iritzira nator oso-osoa. Emen gabilta euskera «bateratu» orri «filosofal-aria» izango dala-koan; euskera bateratuak gure iz-kuntzaren geiko gutiak osatuko di-tualakoan... baia «Zaloña» jauna-bidaz nik ez det olakorik utzi. Milla bida esan det eta barriro bere esango; ni ez nago batasunaren aurka baiña, arren, zentzuna ta bo-rondate ona eskatzen dute; denbo-reagaz, apurka-apurka batasunaruntz joko dugu, baia ez cocktail antze-ko batasunera, boskarren euskal-ki orrek ez dau erri-kutsurik izango eta.

Ain ondo ezagutzen dodan Bil-boko giroa ikusi dogu, beste alde batetik baiña, Mungian lan egiten det goizetan; an dago orain euske-ran «il-edo-bizi» gudu mugatariko bat; egunetik egunera lantegi ba-riarik sortzen dira ta jakina! inmi-grazioa. Gazte talde bat elkartu gara muga onetan. Gure izkuntzak bizirik iraun dezatan, eta aal dan neurrian zabaltu daiten.

Gaurko giroan, argi ikusten dogu bidea: euskera ikuntza bezela garbi-garbi utzi, ez ezertan naastatu. Leenago naastatu bakan (nik ez det utzi baiña) ondo ikusi dogu on-dorena. Ogeitamar utzi oneitan lotu izan doguzan baimenak ez dira lan gutxiagor lortu; Aldizkariak, irra-ti saioak, ikastolak eta abar, zenbat ukamen entzun ondoren lortu dira? Baiña beaz-beazrekoak doguz gure umeak, gure aurak euskaldun iraun-gu badabe. Landara bari onen biz-karrean dago gure izkuntzaren etor-ki-zuna. Arren, utzi bakean euske-rea ta ikastolak, bestela gauro egunetan Bizkai aldean jasoten di-ran larri-aldiak ugariituko jakuz.

Irakurleen artean, gaionok uler-tuko dozue nere eskariaren «ma-miña» ta nere utze apalean «bake» orri «bateratzea» baiño osaki edo medikamentu ohea izango da eus-kerarentzat. Gero gerokoak.

Zeruko Argian irakurri det Bil-boko eskolapioen artean gizon ja-kintsu ta apa baten lan gutzia gel-dirik dagoala. Ondo ezagutzen det jaun maite orri; ondo dakit berak bakarrik ikuntzaren sustarririk sa-kononetaraiño egin duan lanaren barri: Eun mila esakera jatorritik gora batu dituz! Ori bai lan ede-rra ta jakingarria baiña, ona emen nere mingaifera agertzen dan itan-dua, ez ete-da alperriko? Gaur, idazle batzuen jokarea ikusi onde-ren esakera ta euskera jatorrak ez dabela ezertarako balio, dirudi. Jain-koari eskerak, ekaitzaren ondoren itas baretua etorriko da ta lan orren frutuak ugariak izango dira.

Zeruko Argian irakurri izan det zeozor Kil-kili alfabetatze ekinaldi-az. Gauzak ondo esaten ez ba-dira, obeto da ez aitazeta ta ba-kean utzitea. «Osaba Kilikili» ta bere lagun gazteak lan asko ta la-guntza gutxi izan dabe orain ar-ri, baiña lasai dagoz, ta kementsu, isil-isilean beste berba-lapiko as-ko baiño lan garantzizuaogo egi-ten; utzi bakean orreik ere, arren, azi barria lur onean erne daiten, landara indartsu asko ekkariz.

Azken oar bat: Laster Bizkai al-dean editorial barri bat izango do-zue; zuen lanak agertzeko modu-ko eta jatorrak badira ez dozue oztoporik izango. Editorial onen el-burua euskal kulturaren aberasta-suna izango da.

Idaz lan au irakurri ondoren ba-liteke baten batek esatea «Zela-ko euskera egiten dau onek? Ez bizkaleraz, ez gipuzkeraz... baiña danok uleru badozue, ez da au ba-tasunerako bidea?

ARENAZATAR JOSU